

Gizarte garapen eta garapen jasangarrirako diru laguntza programa bidez Eskoriatzako Udalak Toki garapena sustatzeko emango dituen diru laguntzak arautuko dituen oinarriak

Zioen azalpena

Lurralde baten garapena administrazioaren lehentasunezko helburua da, baita toki administrazioarena ere. Garapenak beti izan du ekonomia izaerako ikusmoldea, hau da, aberastasuna sortzearena. Hala ere, uste dugu administrazioak ez dituela bere politikak aberastasuna sortzera bideratu behar bakarrik, kontuan izan behar du ere aberastasun hori nola sortzen den eta nola banatzen den. Beraz, garapena ikuspuntu integraletik ulertzen dugu, hau da, ekonomia, gizarte eta ingurumena batzen dituen moduan ulertuz.

Horretarako, toki administrazioak hainbat tresna ditu udal baten garapenean eragiteko. Hainbat formula erabili dezake aberastasun horren sorkuntza eta banaketa sustatzeko, hala nola, zerga salbuespen eta hobariak, diru laguntzak eta abar. Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak garapena ikusmolde integraletik sustatu gura du, aberastasunaren sorkuntzak eta banaketak, neurri ekonomikoez gain, gizartearekin eta jasangarritasunarekin lotutako alderdiak ere izan behar dituela ulertuta.

Gizartearen aldetik, gizarte bat ezin da garatu politika aurrerakoiak baztertuz, aberastasunaren banaketa bidezkoa izan behar da eta gizarte justiziaren parametroen arabera egin beharrekoa. Duela urte batzuetatik bizi dugun krisiak eragina izan du eskoriatzarrengan ere, eta gero eta gehiago dira beharrak dituzten pertsonak. Horregatik, Eskoriatzako Udalak urteetan sustatu ditu diru laguntzak eta zerga neurriak behartsuenei laguntzeko, zerga salbuespenak eta hobariak onartuz gehien duenak gehiago finantza dezan udal funtzio publikoa.

Era berean, uste dugu aberastasuna ingurumenarekiko errespetuz eta ingurumena zainduz sortu behar dela. Egitate bat da garapen ekonomiko globalak hondamendiak eragin dituela munduan; eta jardunbide horiek konpondu eta zuzendu ezean, munduak, gaur egun ezagutzen dugun moduan, desagertzeko arriskua handia du. Horregatik, Udalak lagundu egingo ditu ingurumena zaintzeko eta hobetzeko Eskoriatzan egiten diren jarduerak, baliabideak alperrik galtzen ez dituztenak, kontsumoak eta isurketak murrizten dituztenak eta abar.

Garapen ekonomikoa funtsezkoa da edozein gizarterentzat, eta tokiko eremutik lan handia egin da arlo horretan eskualdeko agentzien bidez. Hala ere, egungo egoera ekonomikoan bikoiztu egin behar dira sortutako enplegua mantentzeko ahaleginak, eta lagundu egin behar zaie enpresa ekimen berriei. Eskoriatzako kasuan, eta biztanleria zahartzen ari dela ere jakitun, herriko merkataritza sustatu gura dugu, bera izan baita, egungo egoeran, sektore ahulenetako bat gure herrian.

Programa bakoitzean hartu beharreko neurriek elkarreragin dezaten helburu orokorra lortzeko, hau da, toki garapena bere hiru alderdietan, herri moneta baten erabilera sustatuko da. Tresna hori herriko ekonomia indartzeko, Eskoriatzan elkarbizitza sustatzeko eta herriko ekimenei elkarren arteko laguntza ahalbidetzeko ikuspuntutik laguntzeko modua izatea gura da. Herri



moneta horren izena Axtroki izango da, Axtrokiko haitzean aurkitutako k.a. VII. mendeko jatorri zeltako ontziak erreferentzi bezala hartuz.

Ondoren esango diren diru laguntzetarako oinarriek aurrez esandakoa bere osotasunean hartu gura dute.

1. artikulua. Oinarrien helburua eta xedea.

Oinarri hauen helburua da Eskoriatzako Udalak ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez ondorengo programentzako zuzenean ematen dituen diru laguntza guztiak arautzea:

a) Eskoriatzan gizarte garapena sustatzeko programa

Programaren helburua da zailtasun handiak dituzten eskoriatzarrei laguntzea izan ditzaketen karga ekonomikoari aurre egiten, eta horrela, egungo egoera ekonomikoan egin behar duten ahalegin ekonomikoa leuntzea.

b) Eskoriatzan garapen jasangarria sustatzeko programa

Programaren helburua da ingurumena babestu eta zaintzearen alde aritzen diren eskoriatzarrak saritzea ingurumenean eragin txikiagoa duten jarduerak egiteagatik edo ondasunen titular izateagatik.

2. artikulua. Onuradunak.

Diru laguntza hauetako onuradunak honako hauek izan ahalko dira

Eskoriatzan gizarte garapena sustatzeko programan, honako hauek:

- ❖ Programa zehatz bakoitzeko deialdian aurreikusitako kopuruak baino sarrera handiagoak ez dituzten familia ugariak.
- ❖ Langabezian denbora luzez dauden pertsonak. Hau da, deialdia egiten denean gutxienez urte betez langabezian dauden pertsonak.
- ❖ Adinez nagusiak izan arren 25 urte baino gehiago dituztenak, ikasleak baldin badira.
- ❖ Ezgaitasunen bat duten pertsonak.
- ❖ Erretiro-pentsioa jasotzen dutenak.
- ❖ Alargunak.
- ❖ Guraso bakarreko familiak.
- ❖ Banandutakoak.
- ❖ Adin nagusiko familia kideak lan egiteko adina izan arren langabezian dituzten familiak.

Eskoriatzan garapen jasangarria sustatzeko programan, honako hauek:



- ❖ Ondasun higigarrien edo higiezinaren jabeak, ondasun horiek ingurumena errespetatzen dutela jotzen baldin bada.
- ❖ Beraien hondakinen kudeaketan ingurumen eragin txikiagoaren aldeko jarrerak dituzten pertsonak.

Onuradunek programa bat baino gehiagotarako laguntzak eskatu ahal izango dituzte, horietan eskatzen diren baldintzak aurrez justifikatzen baldin badituzte.

3. artikulua. Diru laguntza jasotzeko onuradunek bete beharreko baldintzak.

2.1. Diru laguntza hauek jaso ahal izango dituzte Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan jasotako debekurik ez duten pertsona fisikoek, betiere, diru laguntzak jasotzen dituztenek ondorengo baldintzak betetzen baldin badituzte:

- Eskoriatzan erroldatuta egotea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Edozein motako zor eta zigor kitatuta izatea Eskoriatza Udalarekin eta bere menpeko organismo autonomoekin.

Dagozkion deialdietan zehaztuko dira baldintzak egiaztatzeko moduak, eta hori egiteko, zer dokumentu eta informazio aurkeztu beharko diren eskaerekin batera.

4. artikulua. Diru laguntzak emateko irizpideak.

Diru laguntzak emateko prozeduran, espedienteak aurkeztu ahala izapidetu eta erabakiko dira (deialdian aurreikusitako epe barruan) horretarako aurrekontu kreditua dagoen bitartean; eta horrela, diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei oinarri hauetako 6. artikuluan aipatutako irizpideak aplikatu ondoren ateratako zenbateko diru laguntza emango zaie.

5. artikulua. Deitutako diru laguntzak emateko kalkulaturako gehieneko kopurua.

Deialdi bakoitzean esango da deitutako diru laguntzak zenbatekoak izango diren, betiere, kontuan izanik diru laguntzak egozteko kredituen muga. Muga hori gehieneko kopurua izango da.

6. artikulua. Diru laguntzaren kopuru bakoitzua edo hori zehazteko irizpideak.

Deitutako kopuruaren barruan eskatzaile bakoitzari eman ahal izango zaion gehieneko diru laguntza dagokion deialdian adieraziko da.

Hainbat laguntza metatu ahal izango dira, betiere, atal bakoitzean adierazitako inguruabarrak betetzen baldin badira.

7. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.



Diru laguntza eskaerak interesdunek sinatu beharko dituzte edo zuzenbidean baliozkotzat jotzen den edozein modutan horien ordezkariak egiaztatzen duten pertsonak. Deialdi bakoitzean ezarriko dira eskaera ereduak.

Eskaerak aurkezteko azken eguna deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da.

8. artikulua. Diru laguntzak emateko prozedura.

Diru laguntzak zuzenean emango dira ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

Prozedura ofizioz hasiko da dagokion deialdia egindakoan. Deialdi horren edukia Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorreko 23.2 artikuluan ezarritakoa izango da, lege horretako 34.1 artikuluan aipatzen den gastua aurrez onartzearen kaltetan gabe.

Diru laguntzak emateko erregimen honetan, aurrekontu kreditua amaitu eta gero erantzun gabeko eskaerarik geldituz gero, eta organo eskudunak horrela erabakiko balu, diru laguntzak egozten zaizkion aurrekontu partida handitu ahal izango da erantzun gabeko eskaerei erantzun ahal izateko.

Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, deialdi batean krediturik ez dagoelako erantzun gabe gelditu diren diru laguntza eskaerak hurrengoan erantzun ahal izango dira, eta lehenetsuna izango dute tramitatzerakoan.

9. artikulua. Diru laguntza emateko prozedura agintzeko, hori bideratzeko eta erabakitze organo eskudunak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaera horiek dagokion batzorde informatzaileak aztertuko ditu. Hain zuzen, honako hauek:

- Eskoriatzan gizarte garapena sustatzeko programan aurreikusitako laguntzak gizarte zerbitzuetako batzorde informatzailean erabakiko dira.
- Eskoriatzan garapen jasangarria sustatzeko programan aurreikusitako laguntzak garapen jasangarriaren batzorde informatzailean erabakiko dira.

Dokumenturen bat faltako balitz, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko. Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, diru laguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Batzorde informatzaileko buruak erabaki proposamena egingo dio Alkateari, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko da erabakia.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera hori ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.



10. artikulua. Diru laguntza ordaintzeko modua.

Diru laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da "Axtroki" herri monetan: axtroki 1-ek euro 1 balioko du. Beraz, onuradunei ez zaie eskudirutan ordainduko. Onuradunek axtroki kopuru zehatz bat jasoko dute, eta herriko dendetan aldatu ahal izango dituzte.

Diru laguntza diru-paperetan ordainduko da, 1, 5 edo 10 axtrokikoetan, diru-paper bakoitzean adierazitakoaren arabera.

Billete horiek Eskoriatzako Merkaterien Elkarteari atxikitako establezimenduetan aldatu ahal izango dira merkatarri bakoitzak bere establezimenduan aldaketa hori egiteko ezarritako baldintzetan.

Berariaz horrela jakinarazten ez bada, billeteak diru laguntzarako deialdia egindako urteko abenduaren 31ra arte aldatu ahal izango dira.

11. artikulua. Erakunde laguntzailea.

Udalak lankidetzak hitzarmena egingo du Axtroki Merkatarri Elkartearekin diru laguntzak kudeatzeko. Hitzarmen hori doanekoa izango da, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe erakunde laguntzailearentzat.

Erakunde laguntzailearen funtzioak honako hauek izango dira:

1. Eskoriatzako merkatariei elkarteko kide egiteko, programan parte hartzeko eta beraien produktuak Udalak jaulkiko duen Axtroki izeneko herri monetan ordaintzea onartzeko eskatzea.
2. Diru laguntza hauek beraien produktuak eta zerbitzuak herri monetarekin erosteko baldintzei eta truke moduari buruz herritarrentzako egingo den informazio kanpainan laguntzea.

Lankidetzak hitzarmenean finkatuko dira programan parte hartzen duten establezimenduek Udalak jaulkitako herri moneta eskudiruagatik aldatu ahal izateko baldintzak, axtroki 1 euro 1 baliokidetasunarekin.

12. artikulua. Helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Diru laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.



13. artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Diru laguntza eskaera egiterakoan, eskatzaileak aitortzen du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia osorik onartzen duela. Era berean, adierazten du eskaeran jasotako datu pertsonalak bere onespenerekin jaso direla, datu horiei tratamendu automatizatua emateko eta Eskoriatzako Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan gordetzeko baimena ematen duela; eta datu horien erabilera bakar-bakarrik udal kudeaketarako erabiltzeko baimena ematen duela, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan beste administrazio edo hirugarrenei laga edo komunikatu ahal izango direlarik.



Bases reguladoras para la concesión de ayudas para fomentar el desarrollo local, por parte del Ayuntamiento de Eskoriatza, mediante los programas de subvenciones de desarrollo social y desarrollo sostenible

Exposición de motivos

El desarrollo de un territorio es objetivo prioritario de la Administración, incluido el de la administración local. El desarrollo siempre ha tenido una concepción de naturaleza económica, es decir, el de generar riqueza. Sin embargo, creemos que la administración debe encaminar sus políticas no sólo a que se produzca riqueza, sino también a la forma en que genera y a cómo se redistribuye. Por tanto, entendemos el desarrollo desde un punto de vista integral, es decir, comprendiendo el desarrollo que aúna lo económico, lo social y lo medioambiental.

Para ello la administración local dispone de distintas herramientas para influir en el desarrollo de un municipio. Puede utilizar diversas fórmulas para estimular la generación y distribución de esta riqueza, tales como exenciones y bonificaciones tributarias, subvenciones, etc. En este sentido, el Ayuntamiento de Eskoriatza, quiere fomentar el desarrollo desde su concepción integral, entendiendo que la generación y distribución de la riqueza ha de contemplar, además de medidas económicas, también aspectos sociales y de sostenibilidad.

En el aspecto social, una sociedad no puede desarrollarse olvidando políticas progresivas para que la redistribución de la riqueza sea equitativa y se realice en parámetros de justicia social. La crisis que vivimos desde hace años ha hecho mella también en los eskoriatzarras y cada vez son más las personas necesitadas. Por ello, el Ayuntamiento de Eskoriatza ha fomentado durante largos años subvenciones y medidas tributarias para ayudar a los más desfavorecidos, aprobando exenciones y bonificaciones fiscales para que quien más tenga financie más la función pública que se desarrolla en el municipio.

A su vez, la generación de la riqueza debe hacerse desde el respeto y el cuidado del medio ambiente. Es un hecho que el desarrollo económico global ha causado estragos en el planeta y de no remediar y corregir estas prácticas el mundo tal cual lo conocemos corre serio peligro. Por ello, desde el Ayuntamiento ayudaremos las actuaciones encaminadas hacia el mantenimiento y mejora del medio ambiente de Eskoriatza, esquivando el desperdicio de recursos, reduciendo consumos y emisiones, etc.

Pero tampoco hay que olvidar que el desarrollo económico es fundamental para toda sociedad y desde el ámbito local, a través de las agencias comarcales, se ha trabajado mucho en ese campo. No obstante, en la actual coyuntura económica se deben redoblar los esfuerzos para mantener el empleo generado y apoyar nuevas iniciativas empresariales. En el caso concreto de Eskoriatza, siendo conscientes del envejecimiento de la población, queremos fomentar el comercio local, que además ha sido uno de los sectores más desfavorecidos en la situación actual en nuestro municipio.



Para que las medidas que se adopten en cada uno de los programa interactúen para la consecución del objetivo global, es decir, el desarrollo local en sus tres vertientes, se va a impulsar el uso de una moneda local. Se pretende que dicho instrumento sirva como método de fortalecimiento de la economía local, para fomentar en Eskoriatza la convivencia, el apoyo a las iniciativas locales desde una perspectiva que favorezca la ayuda mutua. La denominación de la moneda local será Axtroki, haciendo referencia a los cuencos de origen celta del siglo VII a.c. encontradas en las peñas de Axtroki.

Las bases para las subvenciones que se recogen a continuación tratan de englobar lo expuesto anteriormente en su integralidad.

Artículo 1. Objeto de las bases y finalidad.

El objeto de las presentes bases es regular el conjunto de subvenciones a otorgar por el Ayuntamiento de Eskoriatza, mediante el procedimiento de "concesión directa en régimen de evaluación individualizada", correspondiente a los siguientes programas:

a) Programa para el Fomento del desarrollo social de Eskoriatza

El objetivo de este programa consiste en ayudar a las eskoriatzarras con mayores dificultades a atender las cargas económicas que pudieran tener y así suavizar el esfuerzo económico que deben realizar en la coyuntura económica actual

b) Programa para el Fomento del desarrollo sostenible de Eskoriatza

El objetivo de este programa consiste en premiar a los eskoriatzarras que actúen a favor de la conservación y cuidado del medio ambiente mediante prácticas o titularidad de bines cuyo impacto ambiental es menor

Artículo 2. Beneficiarios

Las personas beneficiarias de estas subvenciones podrán ser

En el programa para el Fomento del desarrollo social de Eskoriatza, los siguientes

- ❖ Los titulares de familias numerosas con ingresos no superiores a los contemplados en la convocatoria de cada programa en concreto
- ❖ Las personas en situación de desempleo de larga duración. Se entenderá como tal, la persona que lleve en el momento de la convocatoria al menos un año en situación de desempleo
- ❖ Las personas mayores de edad y menores de 25 años y que tengan la consideración de estudiantes
- ❖ Las personas con algún tipo de discapacidad
- ❖ Las personas pensionistas de jubilación
- ❖ Las personas viudas
- ❖ Las familias monoparentales



- ❖ Las personas separadas
- ❖ Las familias cuyos miembros adultos en edad de trabajar se encuentren en situación de desempleo

En el programa para el Fomento del desarrollo sostenible de Eskoriatza, los siguientes

- ❖ Las personas propietarias de bienes muebles o inmueble consideradas de naturaleza respetuosa con el medio ambiente
- ❖ Las personas con actitudes que favorezcan un menor impacto ambiental en la gestión de sus residuos

Los beneficiarios podrán optar a más de una ayuda previa justificación de los requisitos indicados en cada convocatoria.

Artículo 3. Requisitos que deben reunir los beneficiarios para obtener la subvención.

2.1. Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas que no incurran en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2 y 3 del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, y siempre que se cumplan las siguientes condiciones por parte de lo los/las perceptores/as de la subvención:

- Estar empadronado/a en el municipio de Eskoriatza
- Estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la seguridad social.
- Tener liquidadas todas las deudas y sanciones de cualquier naturaleza con el Ayuntamiento de Eskoriatza y con los organismos autónomos dependientes de él.

Las correspondientes convocatorias concretarán la forma de acreditar los requisitos y a cuyo efecto indicarán los documentos e informaciones que han de acompañarse a las solicitudes

Artículo 4. Criterios de otorgamiento de las subvenciones.

En este procedimiento de concesión de subvenciones, los expedientes serán tramitados y resueltos conforme se vayan presentando (dentro del plazo previsto en la convocatoria) y en tanto se disponga de crédito presupuestario para ello, otorgándose la subvención a los solicitantes que cumplan los requisitos para su concesión y por los importes resultantes de la aplicación de los criterios señalados en el artículo 6 de estas bases.

Artículo 5. Cuantía máxima estimada de las subvenciones convocadas.

En las respectivas convocatorias se indicará la cuantía de las subvenciones convocadas, siempre teniendo en cuenta el límite de los créditos a los que han de imputarse las subvenciones, que tendrán el carácter de cuantía máxima.

Artículo 6. Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.



El importe máximo de la subvención que puede otorgarse a cada solicitante, dentro de la cuantía convocada, será el que se indique en la correspondiente convocatoria.

El distintas ayudas podrán ser acumulativas, siempre que se cumplan las circunstancias descritas en cada uno de los apartados.

Artículo 7. Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

Las solicitudes de subvenciones se suscribirán directamente por los interesados/a o por personas que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho. En las correspondientes convocatorias se establecerán los modelos pertinentes de solicitud.

El plazo de presentación de solicitudes será el que, en cada caso, se establezca en la convocatoria.

Artículo 8. Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión de la subvención será el de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.

El procedimiento se iniciará de oficio mediante la correspondiente convocatoria que tendrá el contenido establecido en el artículo 23.2 de la LGS, sin perjuicio de la previa aprobación del gasto a que se refiere el artículo 34.1 de dicha ley.

En este régimen de concesión de subvenciones, si una vez agotado el crédito presupuestario existen solicitudes sin atender, y en el caso que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

Con independencia de lo indicado en el párrafo anterior, las solicitudes de subvención que no hayan podido ser resueltas en una convocatoria por inexistencia de crédito, podrán tratarse en la siguiente, gozando de prioridad en su tramitación.

Artículo 9. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, éstas serán estudiadas por la comisión informativa correspondiente. En concreto,

- Las ayudas contempladas en el programa para el fomento del desarrollo social de Eskoriatza se resolverán en la comisión informativa de Bienestar social
- Las ayudas contempladas en el programa para el fomento del desarrollo sostenible de Eskoriatza se resolverán en la comisión informativa de Desarrollo sostenible

En el caso de que faltase algún documento se concederá un plazo de 10 días para su subsanación. Finalizado dicho plazo sin haberse presentado la documentación requerida, se entenderá que se desiste en la solicitud de subvención.



El Presidente de la Comisión Informativa correspondiente formulará la propuesta de resolución al Alcalde para que este adopte la resolución oportuna.

La resolución será emitida en el plazo máximo de tres meses contados a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Transcurrido dicho plazo, si el Ayuntamiento no ha adoptado ninguna resolución respecto a alguna solicitud, se entenderá que dicha solicitud no ha sido aceptada.

El Ayuntamiento, a través de la comisión informativa, podrá requerir toda información complementaria que considere necesaria antes de formular la propuesta de acuerdo.

Artículo 10. Forma de pago de la subvención

La subvención concedida será abonada en un único plazo y en forma de moneda local llamada Axtroki, cuya equivalencia será de 1 axtroki 1 euro; esto es, los beneficiarios no recibirán dinero en metálico. Los beneficiarios recibirán una cantidad determinada de axtrokis que podrán ser canjeados en el comercio local.

La cuantía de la subvención se abonará en papel moneda de 1, 5 o 10 axtrokis, indicado en cada una de ellas.

Estos monedas serán canjeables exclusivamente en los comercios adheridos a la Asociación de Comerciantes de Eskoriatza y en los términos que establezca cada comerciante para su canje en el establecimiento.

Salvo comunicación expresa indicando lo contrario, las billetes serán canjeables hasta el 31 de diciembre del año en que se convoquen las ayudas.

Artículo 11 . Entidad Colaboradora

El ayuntamiento, para la gestión de las subvenciones, establecerá un convenio de colaboración con la Asociación de Comerciantes Axtroki. Dicho convenio será gratuito, sin que exista contraprestación económica alguna por parte de la entidad colaboradora.

Será función de la entidad colaboradora:

1. Instar a los comercios de Eskoriatza a que formen parte de la asociación, a que participen en el programa y admitan como medio de pago de los productos que comercializan la moneda local denominada como Axtroki y que serán emitidos por el ayuntamiento de Eskoriatza.
2. Ayudar en la campaña de información a la ciudadanía sobre las condiciones y forma de canje de la moneda local en la adquisición de sus productos y servicios que darán derecho estas subvenciones



En el convenio de colaboración se fijarán las condiciones para que los comercios que participan en el programa puedan canjear la moneda local que emita el ayuntamiento por dinero en metálico, con la equivalencia de 1 axtroki 1 euro.

Artículo 12. Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Artículo 13.- Protección de datos de carácter personal.

Con la presentación de la solicitud de subvención, el/la solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente la misma. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenido en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Eskoriatza y que autoriza que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo proceder a su cesión o comunicación a otras administraciones o a terceros en los supuestos previstos en el Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.